



10. ORDENANTZA FISKALA, ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIAK EMATEAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak establezimenduak irekitzeko lizentziak ematearen gaineko tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

2.1 - Irekitzeko lizentzia jaso aurretik Udalak emandako zerbitzu tekniko-administratiboak dira Tasaren zergagaia, hau da, industriako eta merkataritzako establezimenduek euren funtzionamendu egokirako bete behar dituzten lasaitasun, osasun, garbitasun eta bestelako baldintza guztiak, udal ordenantzetan eta araudietan edota araudi orokorretan eskatzen direnak, betetzen dituztela ziurtatzeko egiten diren egintzak, Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiko 22. artikulua aipatzen duen irekitzeko lizentzia eman aurretik gauzatu beharrekoak.

2.2 - Ordainarazpen honen ondoreetarako, lizentzia eskuratu behar duen establezimendua edo lokala irekitzen dela ulertuko da ondoko kasuetan:

- a) Establezimendua lehendabizikoz ezartzea, beren jarduerari hasiera emateko.
- b) Establezimenduen eskualdaketa, hobariei buruzko atalean araututakoari kalterik egin gabe.
- c) Establezimenduaren jarduera aldatzea edo handitzea, titularra lehengo bera bada ere.
- d) Establezimendua handitzea edota establezimenduan egiten den edozein aldaketa, aldaketa horrek artikulua honetako 2.1 idatz-zatian adierazitako baldintzak ukitzen baditu eta baldintza horiek berriz egiaztatu behar badira.

2.3 - Merkataritzako edo industriako establezimendutzat joko dira bizigarritasun baldintzak betetzen dituzten eraikinak, ez direnak soilik etxebizitzatarako erabiltzen, jendearentzako zabalik egon ala ez eta, horrez gain, honako hau betetzen dutenak:

- a) Ekonomi Jardueren gaineko Zergapean dagoen enpresa, lantegi, arte, eraikuntza, merkataritza edota zerbitzuetako jardueratarako erabilia izatea.
- b) Esandako jarduera horiek gauzatu ez badira ere, jarduera horietarako lagungarri diren eraikinak edota, nolabaiteko harremana izanik, onura edo aprobetxamendua eskaintzen dietenak. Esaterako, entitate juridikoen egoitzak, agentziak, ordezkariak edo sukurtsalak, kontsultak, bulegoak edo estudioak.



III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Honako hauek dira subjektu pasiboak: merkataritzako eta industriako edozein establezimendutan garatu asmo den edo garatzen den jardueraren titular diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergaei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. eta 35. artikulua aipatzen dituen erakundeak.

IV. ARDURADUNAK

4. ARTIKULUA

4.1 - Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. eta 41. artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek izango dute subjektu pasiboari dagozkion zerga-obligazioen gaineko betebeharrak solidarioak.

4.2 - Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko hauek izango dira erantzule subsidiario: elkarteetako administratzaileak eta sindikoak, kiebra, lehiaketa, elkarte eta edozein entitateko kontuhartzaile zein kitatzaileak.

V. ZERGA OINARRIA

5. ARTIKULUA

5.1 - Honako hau da Establezimenduak Irekitzeko Lizentziak ematearen gaineko Tasaren zerga oinarria: lokalaren edota instalazioen tamaina, metro karratuetan emana, Ordenantza honen Eranskinean finkatutako tarifaren arabera.

5.2 - Jarritako generadore eta transformadoreen kilowatio-potentzia hartuko da oinarritzat energia elektrikoa ekoiztu, transformatu edo saltzen duten elkarte eta konpainien kasurako.

VI. SALBUESPENAK

6. ARTIKULUA

Ez dute Tasa ordaindu beharrik izango:

a) Establezimenduaren lekualdaketa ezinbesteko arrazoiren baten ondorioz gertatzen bada, hau da, derrigorrezko eraispena, sutea, aurri egoerako deklarazioa eta antzekoak, edo legezko aginduak betetzearen ondorio izanez gero, baina beti ere administrazioak ezarritako baldintzak ez betetzearen edo zehapen baten ondorioa ez bada.

Salbuespena lehenagoko lokalari aplikatuko zaio, behin konponduta edo berreraikia denean, edo, bestela, haren ordezkari lokal berriari, beti ere jarduera bera egiten bada eta ez bada jarduera hori handitzen.

b) Barrualdetik establezimenduarekin komunikatuta dauden salgaien biltegiak, establezimenduak irekitzeko lizentzia izanez gero.

VII. HOBARIAK

7. ARTIKULUA

7.1 - Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute ondoko hauek:

a) Establezimenduaren lekualdaketa, lekualdaketa hori lokalean obrak egin beharrak eragin badu eta beharrezko diren obra lizentzia eta irekitzeko lizentzia izanez gero.

b) Establezimenduen eskualdaketa, ondorengotza edo lagapenaren ondorioz gertatzen denean, bai ezkontideen artean eta baita aurreko edo ondorengo ahaideen artean ematen bada ere, beti ere lagapena edo ondorengotza gertatzen denetik urtebeteko epearen barruan eskatzen bada eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan Alta eta Baja aldi berean egitea onartzen bada.

c) Establezimenduak edo lokalak indarrean den hirigintzako araudiaren arabera bidezko ez den zonaldean kokatuta egonik, egokitzen jotzen diren zonaldeetara lekualdatzea, beti ere garatutako jarduera bera bada.

7.2 - Zerga kuotaren %25eko hobaria izango dute ondoko hauek:

a) Lokalean aldaketarik egin gabe gauzatzen diren establezimenduen eskualdaketak, 3.1.b. idatz-zatian aipatzen ez direnak.

b) Lokala handitzea, gehitutako zatia lehengo lokalarekin komunikatuta badago; jarduera bera hedatzea.

VIII. SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

8.1 - Zergagaia eratzen duen udal jarduerari hasiera ematean sortzen da Tasa. Ondorio hauetarako, subjektu pasiboak irekitzeko lizentzia eskaria aurkezten duen egunean emango da hasikotzat udal jarduera hori, subjektu pasiboak berariaz eskaria egiten duen kasuan.

8.2 - Beharrezko den lizentzia lortu barik irekitzen denean establezimendua, bete beharreko baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko jarduerari udalak ekiten dion unean sortuko da Tasa. Horerk ez du kentzen establezimendua irekitzeko baimena eman ahal izateko bideratu beharreko administrazio espedienteari hasiera ematea edo irekitzeko baimena ez bada bidezkoa establezimendua ixteko agindua ematea.

IX. AITORPENA

9. ARTIKULUA

9.1 - Merkataritza edo industria establezimendua irekitzeko lizentzia lortu nahi duten pertsonak eskabidea aurkeztu beharko dute Erregistro Orokorrean, ondoko zehaztasunak adierazita: alokairu kontratuak, administrazio emakidak edo eskuratze agiriak jasotzen duen jarduera edo jarduerak eta jarduerarako erabiliko den guztizko azalera.

9.2 - Irekitzeko lizentzia eskaria aurkeztu ondoren, establezimenduan garatzekoa den jarduera aldatu edo handitu eginez gero, edo hasieran aurreikusitako lokala handituz gero, egindako aldaketa horiek Udal Administrazioari jakinarazi behar zaizkio eta aurreko idatz-zatian eskatutako



zehaztasun berberaz jakinarazi ere.

X. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

10. ARTIKULUA

Udalaren jarduera burutu eta irekitzeko lizentziari buruzko udal ebazpena eman ondoren, Tasari dagokion behin betiko likidazioa egingo da eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, Dirubilletari buruzko Foru Erregelamendu Orokorrean ezarritako moduan eta epeetan ordain dezan dagokion zenbatekoa udalaren kutxan, zuzenean.

XI. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

11. ARTIKULUA

Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta ondorengoetan xedatuaren arabera sailkatuko dira zergei buruzko arau-haustek, bai eta kasu bakoitzari dagokion zehapena finkatuko ere.

XII. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

XIII. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK: TAULA OROKORRA

<u>AZALERA</u>	<u>JARDUERA SALBUETSIA</u>	<u>JARDUERA SAILKATUA</u>
50 m2-raino	359,20 €	719,40 €
50 m2-tik gora 100 m2-raino	503,70 €	1.007,35 €
100 m2-tik gora 250 m2-raino	862,80 €	1.726,75 €
250 m2-tik gora 500 m2-raino	1.438,00 €	2.877,50 €
500 m2-tik gora metro karratu bakoitzeko	1,18 €/m2	2,15 €/m2



Edonola ere, irekitzeko lizentzia eskuratzeko gutxienez ordaindu beharrekoa.....299,00 €

TARIFA BEREZIA

Aurreko taulan ezarritakoaren salbuespen izango dira ondorengo epigrafeetan adierazitako lokal edo establezimenduetan garatzen diren lanbide eta jarduerak irekitzeko lizentziak.

1. Komunitateko garajeak eta ibilgailuen aparkalekuak, garbiketa, koipeztatze eta antzeko zerbitzurik ez dutenak

200 m2-ra artekoak683,90 €
200 m2-tik gorakoak.....888,40 €

2. Goian adierazitako tarifetan azaltzen ez diren jardueretarako honako hau hartuko da zerga kuotatzat: Ekonomi Jardueren gaineko Zergan jarduera bakoitzari dagokion kuota